

Juan Antonio Letamendiaren hilberri txostena (1940-2019)

MUJKA, Jose Antonio
Euskaltzain urgazlea

Gaztetan euskaldundu zen Juan Antonio Letamendia, Seminarioko ikaskide euskaldunak laguntzaile zituela. Ondoren, emaitza bikainak eskaini zituen euskalgintzan. *Idazle* izan zen hasieran; *irakasle* gero, *metodogile* trebe; *itzultzaile* eta *ikertzaile* ere izan zen neurri batean; eta ekarpenak biribiltzeko, euskarazko *komikigintzan* ere ale bikainak eskaini zituen.

IDAZLEA. Ikasketak amaituta, bost urte egin zituen Bergarako Angiozar auzoan, apaiz. Han hasi zen euskarazko lanak idazten eta kaleratzen. Ipuinak idatzita, sariak irabazi zituen, Arrasaten, Durangon eta Erreterian. *Zeruko Argia* eta *Jakin* aldizkarietan ere idatzi zituen artikulak. Batzuk aipatzearen, "Oteiza gizon ikaragarri bat da" izenburua duena eta Aldaba herriko eliza berezia diseinatu zuen arkitektoari egin zion elkarrizketa, 'Estetika berria elizgintzan' izenburua duena.

Urte haietako da, halaber, Arthur Milleren *All my sons* antzerkiaren itzulpena, *Denak nire semeak* euskaraz, Jarrai taldeak antzeztu zuena. Ikusle batzuei "modernogia" iruditu zitzaion obra hau, beharbada. Baina horixe zen, hain zuzen, antzezleek bilatzen zutena: euskarari modernotasunaren prestigioa ematea.

Modernotasunarena ez ezik, euskararen batasunaren kezka ere bazuen Juan Antoniok urte haietan. 1968an, Arantzazukoaren aurretik Ermuan egin zen idazleen batzarrean "Zenbait iritzi batasunari buruz" izenburuko txostena aurkeztu zuen, euskararen batasunari buruz urteetan zehar egindako proposamenak biltzen eta azaltzen zituena.

IRAKASLE ETA TESTUGILE TREBEA. Angiozarko urteen ondoren, bide berriak urratzeari ekin zion Juan Antoniok. Apaiz izateari utzita, irakaskuntzara begira jarri zen, Filologia Erromanikoa ikasita. Donostiako Santo Tomas lizeoan egin zituen urte batzuk, euskarazko ikasleei *Euskara* irakasgaia ematen. Antolatu-

tako material gutxi zegoen horretarako. Hutsunea betetzeko *Euskara 6* testuliburua prestatu zuen han, txukun eta egoki, gerora etorriko ziren testuliburuaren aitzindari bikaina.

Hurrena, Donostiako Irakasle Eskolan egin zituen lau urte. Maisu-maistra euskaldunen beharra ikusita, eraginkorrena euskaldunak alfabetatzea zela uste zuen Juan Antoniok, baina frankismoaren garaitik zetorren zuzendaritzak ez zion horretarako aukerarik eman. Ikasle denak batera hartu behar zituen, eta euskalduntze arin bat eskaini: “Tú enseñas un poco para que puedan hablar en la plaza, para cuando van a comprar algo...” esan omen zioten. Juan Antonio ez zen, ordea, euskalduntze arinera mugatu. Hizkuntza modernoaren metodologiak aztertu eta haietako bat euskarara egokitzea erabaki zuen. Talde bat antolatuta, Jalgi Hadi metodoa landu zuten. Metodoa Irakasleen Eskolarako egin bazegoen ere, asko zabaldu zen handik kanpora ere. Juan Antonio izan zen eragile nagusia.

Hurrena, berriz, Hondarribiko institutuan lortu zuen katedradun lanpostua. Hala ere, sei urte egin zituen Donostiako Urrutiko Batxilergoko Institutuan, zerbitzu eginkizunean. Testuliburu bereziak erabiltzen ziren institutu horretan, ikasleak bere kabuz urratsak egiteko modukoak. Euskararena falta zen, eta Juan Antoniok egokitu zitzaion hori egitea. Metodogile, ostera ere. Horrela sortu ziren arrakasta handia lortuko zuten *Bakarka* saileko liburuak. Lehenbiziko hirurak egin zituen Juan Antoniok. Berez institutuan erabiltzeko liburuak ziren, baina, Elkar-ek argitaratuta, handik kanpora ere asko erabili dira, eta are erabiltzen dira oraindik ere. Euskalduntzen hasitako asko eta askorentzat lagungarri ona izan dira. Letamendiaren *bestsellerrak* izan direla esan daiteke.

Ikusten den bezala, irakasle lanetarako beharrezkoa zuen materiala prestatzeari ekin zion Juan Antoniok beti. Ez zen, alegia, bestek egin zezan eskaka ibili, maiz gertatu ohi den bezala. Berak ekiten zion, emaitza bikainak eskainiz.

ITZULTZAILEA ere izan zen Juan Antonio, neurri batean. Ez zuen itzulpen asko egin, baina egin zituenak aipagarriak dira.

1970eko udaran hitzaldi batzuk eman zituen Koldo Mitxelena Donostiako EUTGn, linguistika gai hartuta. Hitzaldiak, entzule asko bildu zituztenak, gazte-leraz eman zituen. Letamendiak magnetofonoan hartuta, euskarara itzuli eta liburu gisa antolatu zituen, *Zenbait hitzaldi* tituluarekin. “Liburutxo polit, mamitsu eta argia” dela idatzi zuen Patxi Goenagak, honako hau erantsiz: “J. A. Letamen-

diak euskaratu eta paratu zigun lana, egileak erabiliko zukeen moldea eta hizkera maixukiro gordeaz”.

1977an argitaratutako *El libro blanco del euskeran* Mitxelena idatzitako hitzaurre mamitsua, askotan aipatua, *El largo y difícil camino del euskara*, Juan Antoniok euskaratu zuen, *Euskararen bide luze bezain malkarrak* euskaraz.

Urte batzuk geroago José Ortega y Gasseten *La rebelión de las masas* liburu ezaguna euskaratu zuen *Klasikoak* bilduman, *Masen errebolta* tituluarekin.

IKERTZAILEA. Ikerkuntzarako ere hartu zuen beta Juan Antoniok bestelako lanen artean. Lizentziako memoria, *Equivalencias léxicas vasco-latinas en el Gero de Axular* izenburua zuena, ASJU argitaratu zen.

Axularri buruzko beste lan interesgarri bat idatzi zuen, Erretorika Klasikoak haren itzulpenetan izan zuen eragina aztertzen zuena. Leizarragari buruz, berriz, gramatika-azterketa bat egin zuen, partizipioaren erabileraz, Euskaltzaindiak Arrasaten 1980an egin zuen biltzarrean aurkeztu zuena.

Eta Hondarribiko euskarari buruz ere bi lan argitaratu zituen: bokalismoari buruzkoa bat, eta Roque Jazinto Salazarren predikuaen hizkera aztertzen zuena bestea, Txomin Sagarazarekin batera egina, Euskaltzaindiak antolatutako Nazioarteko Dialektologia Biltzarrean aurkeztu zutena.

MARRAZKILARI ETA KOMIKIGILEA. Orain arte aipatu ditudan Juan Antonioren lanak ezagunak dira, gutxi edo asko, euskaltzaleen artean. Ez hala, nire ustez, orain aipatuko ditudanak. Marrazkigintzan eta komikigintzan egin zituenak, alegia.

Trebea zen Juan Antonio txiste grafikoak asmatzen. Umore finekoa. Honela zioen *Komikeri* aldizkariak, haren lana azalduz: “Gaur egun komikizaleen artean arras ezezaguna den arren, gure ustez talentu handiko egilea da. Euskal komikiaren zuzia 60. hamarkada osoan zehar piztuta mantendu zuen egile bakarra izan zen”.

Komikigintzako lehen lanak 1960 eta 1964 urteen artean argitaratu zituen Panpin komiki gisakoan, "Leta" izenpearekin. *Zeruko Argian* hamar urtez aritu zen, "Lerro", "Neu" eta "Geu" goitzenak erabiliz. *Garaia* eta *Muga* aldizkarietan, berriz, "Fits" ezizena erabiliz argitaratu zituen ilustrazio batzuk, bineta bakarrekoak zein istorio luzeagoak.

Sinpletasun zorrotza omen zuen Letamendiaren komikigintzak ezaugarri, *Komikeri* aldizkariak dioenez.

EUSKALTZAINDIAN gaudenez, ez nituzke aipatu gabe utzi nahi Juan Antoniok Akademia honetan egin zituen lanak. Batzuk, bederen. Euskaltzain urgazle izendatu zuten 1975ean, eta egiaz ‘laguntzaile’ izan zen erakundean. Ondoko urteetan honako batzorde hauetan hartu zuen parte: Gramatika, Aditza, Elebitasuna eta Irakaslegoa. 1978an, Arantzazukoaren hamargarren urteurrenean, batasuna gai hartuta Bergaran egin zen batzar jendetsuan idazkari lanak egin zituen Juan Antoniok, Mitxelena proposaturik. Eta hurrengo urtean gramatika lanak bultzatzeko Arrasaten egin zen Biltzarrean ere Hizkuntza batzordeko kide eta idazkari izan zen.

1981ean Irakaslego eta Gramatika batzordeak utzi, eta bere lana batez ere Dialektologia batzordera bideratu zuen. Hala ere, Gramatika batzordeak EGLU saileko lehen liburukia argitaratu zuenean, 1985ean, hari buruzko iritzi kritikoa eskatu zion, aditu gisa, Juan Antoniori. Bai honek zehatz eta argi erantzun ere. Liburuaren ekarpena eta balioa aipatu zituen, ASJUn agertutako artikulu batean, baina ustezko hutsuneak eta desorekak ezkutatu gabe. Esan gabe doa eskertu egin ziola batzordeak bere eskariari emandako erantzuna.

1981etik aurrera, esan bezala, Dialektologia batzordeko kide izan zen. Eta hor ekin zion Atlasgintzako lanetan parte hartzeari. Inkesten plangintza aztertzeke egin ziren jardunaldietan partaide, zenbaitetan idazkari, izan zen. Inkestetan ere parte hartu zuen. Aurrerago, berriz, Hondarribiko irakasle postuan izandako bigarren parentesian, *Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren* agerpenak prestatu zituen taldean aritu zen, 1998tik 2003ra bitartean. Dударik ez da mapen moldaketan eta gainerrakoetan Juan Antoniok izaten zuen zehaztasun irizpidea baliagarri izango zutela taldekoek.

HONDARRIBIKO udalean, bestalde, zinegotzi izan zen lau urtez, euskara azpi-batzordeko buru eta *Hondarribia* aldizkariko zuzendari. Artikulu labur asko idatzi zituen aldizkarian, bai orduan eta baita ondoko urteetan ere. “Aldizkarietako artikulu apalok huskeria izaten dira –esaten omen zuen Juan Antoniok–, baina denboraren buruan hondar nasaia pila dezakete”.

Hona, bada, gaztetan euskaldundu zen Juan Antonio Letamendiak euskalgintzan utzi dizkigun emaitzak, ugariak eta balio handikoak. 2019an hil zen, Gabon egu-

nean, abenduaren 24an. Hura hil berritan artikulua batean idatzi nuena errepika dezaket hemen oroitzapen txosten hau amaitzeko. Honela nioen: “Aipatutako alor horietan guztietan maila handiko lanak egin zituen Juan Antoniok, txukun eta bikain betiere (...). Ondo irabaziak ditu, bada, zalantzarik gabe, euskaltzaleon eza-gutza eta esker oneko aitortza”.